

UGT pozik agertu da administrazio publikoetan txanda-kontraturako sarbidea bideratu izanagatik

Sindikatuak plantillak gaztetzeko neurri gehiago eskatu ditu eta "atzeraezinak" direla ohartarazi du

2026ko uztailaren 21ean

UGT Zerbitzu Publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrak gaur goizean Gasteizen egindako bileran parte hartu du. Bertan, hainbat gai jorratu dira, 16 puntuko gai-zerrendarekin, baina sindikatuak nagusiena nabarmendu du, txanda-kontratuena. Pozik agertu da Eusko Jaurlaritzak zirriborro berri bat igorri duelako Euskadiko administrazio publikoetan txanda-kontratua bideratzeko, UGTk eginiko proposamenari erantzunez ekainean Espainiako Ministroen Kontseiluak onartutakoaren harira.

Ildo beretik, Arantza Agote UGT Zerbitzu Publikoetako idazkari nagusiak, Mahai Orokorrean parte hartu duenak, deitoratu du hori izatea administrazioetako plantillak gaztetzea sustatzeko neurri bakarra, eta ohartarazi du premiazkoa dela, "erretiroetan oinarritutako aurreikuspenak kontuan hartzen baditugu, neurri horiek atzeraezinak" direlako.

Bileran, sektore publikoarentzat garrantzitsuak diren beste gai batzuk ere jorratu dira. Ekonomiari eta kontratuari dagokienez, aldi baterako langileak uzteagatiko eta hautaketa-prozesuetan parte hartzeagatiko kalte-ordainen berrikuspenari buruz eztabaidatu da, baita langile publikoen erosteko ahalmena berreskuratzearen inguruan. Halaber, bilerak lan-antolamenduari eta plantillari buruzko gaiak aztertzeako balio izan du, hala nola lanaldia, enpleguaren sorrera eta giza baliabideak antolatzeko plana. Era berean, hautaketa-prozesuetan izangaiak finkatzeko eta kalte-ordainak emateko neurriak jorratu dira, besteak beste.

UGTk, halaber, baikor hartu du IT Txartelen akreditazioa kentzea baldintza gisa, "eskakizun diskriminatzailea" zelako, Euskadin bakarrik lor zitekeena.